

## NARRATIBA

## Maitasun guztiak

## ORDU BIETAN FRONTOIAN

Jokin Ansorena Miner  
Alberdania 2010  
398 orrialde, 21 euro

Iban BALERDI

Izenburu kurioso honekin, irakurtzen hasi baino lehen zaila zen erreferentzia zeri egiten zion jakitea. Pilotalekua izan zitekeen, jolasteko ez ezik, elkartzeko ere toki aski arrunta da-eta. Jokin Ansorena donostiarrak, ordea, Tolosako Udaleko kultur teknikari moduan egiten du lan, eta honek beste "frontoi" bat ere esan nahi du, herria edo bailara ezagutzen dutenentzat behintzat. Datu horrekin batera, beste batzuk ere Tolosako herriarekin lotzen dute kontakizuna, nahiz eta liburuko herriak Bedaiope izena jaso. Gainera, liburuko narrazaile eta pertsonaia nagusia Andres G. Ruiz izeneko Bedaiopeko kultur teknikaria da. Espazioa nahikoa zehatza baldin bada, denbora guztiz da konkretua, 2008ko udazken-negu partean kokatzen delako. Badirudi beraz, kasik denbora errealean idatzia izan zela.

Maitasun istorioek osatzen dute liburaren muina, elkarrekin lotzen diren maitasun istorio erabat desberdinek. Izan daitezkeen guztiak sartzen saiatu dela dirudi egilea, maitasunak inolako mugarik ez duela argi eta garbi utzi nahian. Bikotekidea topatzeko adin zail samarrean dauden Andres eta Teresa, laurogeiak beteta dituzten Raimundo eta Manuela, amodio gaztearen adibide diren Daniela



eta Mario, beraien artean berrogeita hamar urteko tartea duten Magdalena eta Anizeto, eta abar. Edadearenaz gain, jatorri ezberdineko bikoteen muga ere hausten ahalegindu da idazlea, poloniar, kubatar eta argentinarrak euskaldunekin nahastuz. Nahasketa atsegina bezain zaila, batez ere egoera desberdinen garapenera dagokionez, batzuek azkarregi egiten baitute aurrera.

Harreman hauek guztiak kontatzeko Andresena ahots nagusia bada ere, beste hainbat zeharkako modu ere erabiltzen dira, gutunak, e-postak eta memoriaren bideoaren kontakizuna, besteak beste. Hari nagusitik behar bezala desberdintze-

ko bestelako letra motak erabili ditu eta, alde horretatik, ez dago zailtasun handirik. Ariketa interesgarria iruditu zait, zenbaitetan baita bizigarria ere, Kultur Batzordearen aktarenari luzeegi iritzi arren.

Aipatutako akta horretan, eta liburu guztian oro har, ez da politikarien irudi onegirik eskaintzen. Umorea baliatzen du horretarako eta Satis kultur zinegotzia da horren erakusle argiena, bera baita pertsonaiarik nagien eta parodiatuena. Irribarrea ateraraztea zein zaila den kontuan hartuz, baloratzeko modukoa da beharrezko tonua lortzeko erakusten duen trebetasuna, tarte dibertigarriak sortzeraino.

Amodio istorioez aparte, beste zenbait gaik ere badute garrantzia Ansorenaren nobelan. Esaterako, jan-edanak, askotan baitira hizpide, eta otorduren batera doazen bakoitzean bertan jan behar dutena ere zehatz-mehatz aipatzen da osagarri guztiakin. Frankismo garaiko gertaerek osatzen dute beste erpinetako bat. Orduko gertaerek eta egun oraindik ezkutuan dirauten ondorioek.

Orokorrean kontu eta pertsonaia asko sartzeko iaiotasuna erakutsi du donostiarrak, istorioak bata bestearekin txirikordatzen badakiela eta menperatzen duen inguru bati buruz ari dela. Dena den, irakurtzen ari nintzela, gutxi gorabehera hiruhungarren orrialdean bukatuko zelakoan nengoen, gauzak bideratuta ziruditelako, onerako edo txarrerako. Hortik aurrerako arraro samarra iruditu zait, pertsonaia berri eta guzti. Amaieran istorioak behera egiten du, aurrez gustura irakurtzen den kontakizun honetan.



Mikel IBARGUREN

## Atzekoz aurrera

Beti dira lazgarriak torturatuen testigantzak. Min fisiko eta psikologiko larriak eragitea da torturatzea, Elhuyar hiztegi entziklopedikoaren arabera. Diotenez, kolpe fisikoak baino gogorragoa egiten dira norberaren zerizanean gelditzen diren zauriak. Ondikotz, izen torturatu askoren jabe dira milaka pertsona hamarkadak joan, hamarkadak etorri.

Literaturan ere badu bere presentzia torturak, besteak beste Ariel Dorfmanen "Herroia eta Dontzeila"n (Fito Rodríguez euskaratua), nahiz Mario Benedettiren "Pedro eta Kapitaina" antzezlanean. Egia berreskuratzeko moduetako bat objektibitatea berreskuratzeko litzateke, Benedetik hitzaurrean dioen bezala, «egia berreskuraturik garai-pena lortzeko».

Ez da gurean atzekoz aurrera idazten den lehenengo aldia, torturaren azarnak literaturako orrialdeak ziprztindu baititu; hedabide gehienek isiltzen duten errealitatearen gordina literaturaren bidez eman izan zaigulako.

«Zelan adieraziko du gero mutil torturatuak/ epailearen aurrera suntsiturik iristean/ *objetive correlative* kontzeptuaren esanahi zehatza?», galdetzen du Sarrionandiak "Literatura eta Iraultza" poeman.

Eta nago gizabereak bere baitan duen alderik ankerrena ez dela bere aberetasuna, gizaki izaera baizik. Animaliak ez bezala, gizakiak baino ez baitu min ematen, min emateagatik. Borreroak dituen milaka aurpegi-tako bat ez baita, hain zuzen, munstroarena, pertsona batena baizik, Abou Ghraib aurretik zein ondoren ere, gizakiak suntsiketara daramatzan gizakiaren aurpegia baitu borrero horrek; barrenak urratuz eta izua begietan txertatuz doana.

Horregatik «Anjel Martinez komisarioak bere errebolberriaren ipurdira sartu eta mirilla zikindua,/ odoldua, patetikoa ateratzen duenean/ zer axola zaio mutil torturatuari poeta/um fingidor den?». Zer, etsiak hartuta "azt-nugal" eskatzen duenean?

## KALERATU BERRIAK



## ADISKIDETASUNAREN ALDARRIA

LINH JAUNAREN ILOBA  
Philippe Claudel | Itz.: Itziar Diez de Ultzurrun | Igela, 2010  
125 orrialde. 15 euro

Gerratik ihesi, biloba eta maleta eskas bat hartuta, herrialde arrotz batera iritsi da Lihn agurea. Erbeste hotz horretan gizon bat ezagutuko du. Harreman horren kontakizuna da "Lihn jaunaren iloba"; hizkuntzaren bidez elkar ulertu ez arren, keinu, irribarre eta bihotzaren bidez sortzen den adiskidantzen istorioa.



## SUTONDOKO IPUINAK

KRISEILUAREN ARGIPEAN  
Anxel Fole | Itz.: Josemari Navascues Baskaran | Alberdania-Elkar, 2010  
140 orrialde. 10,80 euro


Familia bat Lugoko herrixka baten duten etxera abiatu da, ehizan jarduteko asmotan. Baina elurtea dela-eta ezingo dira mendira atera eta etxean geratu behar izango dute. Sutondoaren inguruan bilduta, beldurrezko ipuinak kontatzen hasiko dira, hauetako batzuk eza-gunak eta beste batzuk Anxel Fole egileak asmatuak.



## UN PERTURBADOR THRILLER

SORRY  
Zoran Drvenkar  
Seix Barral, 2011  
432 páginas. 20 euros

Cuatro jóvenes de Berlín fundan una agencia que se dedica a pedir perdón, sin embargo, ninguno de ellos se espera las consecuencias que les traerá esta idea. Y es que el negocio fluye hasta que un cliente anónimo les obliga a pedir perdón a una mujer muerta y deshacerse de su cuerpo, lo que les supondrá una pesadilla sin fin.



## ¿GOOGLE NOS VUELVE ESTÚPIDOS?

SUPERFICIALES: ¿QUÉ ESTÁ HACIENDO INTERNET... | Nicholas Carr | Taurus, 2010  
352 páginas. 19,50 euros

«¿Google nos vuelve estúpidos?». Nicholas Carr condensó así, en el título de un artículo, uno de los debates que se dan hoy en día: mientras disfrutamos de la Red, ¿estamos sacrificando nuestra capacidad para leer y pensar? En este libro, Carr desarrolla un profundo análisis sobre las consecuencias intelectuales de internet.